– 105eko koefizientea, 4en gaineko Anitza apustuan ordainduko diren asmatutako kopuruari.

Horrela lortutako zatidura oinarrizko dibidendua da apustuaren dibidenduen kategoria bakoitzerako, honela:

7en gaineko Anitza konbinazioari ordaindutako dibidendua oinarrizko dibidendua da, bider 3.

6en gaineko Anitza konbinazioari ordaindutako dibidendua oinarrizko dibidendua da, bider 7.

5en gaineko Anitza konbinazioari ordaindutako dibidendua oinarrizko dibidendua da, bider 21.

4en gaineko Anitza konbinazioari ordaindutako dibidendua oinarrizko dibidendua da, bider 105.»

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko uztailaren 21a.

Herrizaingo sailburua,
JAVIER BALZA AGUILERA.

– Un coeficiente 105 al número de aciertos pagables en la Multi en 4.

El cociente así obtenido constituye el dividendo de base para cada categoría de dividendos de la apuesta, siendo el:

Dividendo pagado a la combinación Multi en 7 igual a 3 veces el dividendo de base.

Dividendo pagado a la combinación Multi en 6 igual a 7 veces el dividendo de base.

Dividendo pagado a la combinación Multi en 5 igual a 21 veces el dividendo de base.

Dividendo pagado a la combinación Multi en 4 igual a 105 veces el dividendo de base.»

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de julio de 2008.

El Consejero de Interior,
JAVIER BALZA AGUILERA.

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

**4787**

148/2008 DEKRETUA, uztailaren 29koa, Dekretu hau bigarren aldiz aldatzen duena: Dekretua, Lanpostuen Zerrendak, ikasturtez ikasturte, Bigarren Mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutuetako zein irakaslerengan duen eragina zehazteko irizpideak ezarri eta irakasleak zentroetan berriro atxikitzeko prozesua arautzen duena.

Apirilaren 16ko 86/2002 Dekretuak Lanpostuen Zerrendak, ikasturtez ikasturte, Bigarren Mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutuetako zein irakaslerengan duen eragina zehazteko irizpideak ezarri eta irakasleak zentroetan berriro atxikitzeko prozesua arautzen zuen. Eta ondoko xedapen hauetan ezarritakoa garatzen zuen: otsailaren 19ko 2/1993 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzkoa; maiatzaren 9ko 47/1993 Dekretua, irakaskuntzako lanpostuen hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak ezartzeko irizpideak

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**4787**

DECRETO 148/2008, de 29 de julio, de segunda modificación del Decreto por el que se establecen los criterios para determinar el personal docente afectado cada curso escolar por la Relación de Puestos de Trabajo de los Institutos de Educación Secundaria y de los Específicos de Formación Profesional de Grado Superior, y por el que se regula el proceso de readscripción del profesorado en sus respectivos Centros.

El Decreto 86/2002, de 16 de abril, estableció los criterios para determinar el personal docente afectado cada curso escolar por la Relación de Puestos de Trabajo de los Institutos de Educación Secundaria y de los Institutos Específicos de Formación Profesional de Grado Superior, y reguló el proceso de readscripción del profesorado en sus respectivos Centros, en desarrollo de lo dispuesto tanto en la Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de la Enseñanza no Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco, como en el Decreto 47/1993, de 9 de mayo, por el que se estable-

ezarri zituena; langile horiei aplikatzeko beste arau juridiko batzuk.

Urriaren 10eko 198/2006 Dekretuak aldatu zuen aipatutako Dekretua, irakaskuntzako funtzio publikoaren arlo batzuetan gertatzen ari ziren lege-aldaketetara egokitzeko.

Ordutik hona, urterik urte aplikatu da Dekretua, hain zuzen ere, plaza finkoa duten langileen egoera juridiko-administratiboa lanpostuen aldaketetara egokitzeko. Izan ere, lanpostuak aldatuz joan dira ikasleen matrikulazioa aldatuz joan den heinean, eta ikuspegi orokorrago batetik, gizarteko eskaera berrien ondoriozko premiak —ikastetxeen erantzuna eskatzen dutenak— aldatu diren heinean.

Momentu honetan, sistemaren egoeraren analisiak erakutsi du adierazitako Dekretuan zenbait aldaketa egitea komeni dela, hain zuzen ere, araudiak egungo elementu guztiak barne hartzen dituela ziurtatzeko, eta horrela, arautzen den prozesuaren ahalik eta eraginkortasunik handiena bermatzeko.

Lehenik eta behin, prozesuan zehar kontuan izan behar diren lanpostuen definizioari eragiten dio aldaketa horrek, ezaugarri berezi batzuk zituzten postuei buruzko atal orokor bat erantsiz, atal hori orain arte ez baitzen ageri.

Bestalde, postu ibiltari eta mistoei buruzko aipamena egiten da, postu horiek II. Faseko III. Txandan bakarrik jasota baitzeuden, baina pertsona titularrei eragingo dieten aldaketak eta kenketak jasan ditzakete, eta beraz, horretarako bakarrik bada ere, prozesu honetan sartu behar dira, eta horrela, haien administrazio-egoerak erregularizatu ahal izango dira.

Bestalde, postu berezien irudia sortu da, zeren eta, Haur eta Lehen Hezkuntzako zentroetarako bezala, Institutuetarako ere aurreikus baitezakete Lanpostuen Zerrendek irudi hori. Lanpostu horiek normalean lehiaketa berezi bidez betetzen dira. Hori dela eta, berriro atxikitzeko fasean eskuratu ahal izango dira lanpostu horiek, nahiz eta, nolanahi ere, prozesuan kontuan hartu behar diren, aldaketarik gertatzen bada ere, eta aldaketa horiek beren titularrei eragiten badiete.

Multzo honen azken atal gisa, ingeleseko espezialitateak emateko beharrezkoa den titulazioa eskatzen duten lanpostuei egiten zaien erreferentzia dago. Datozen urteetan gero eta horrelako lanpostu gehiago jasoko dira Lanpostuen Zerrendetan, ikastetxeek irakaskuntza eleaniztunaren premia berriei erantzun beharko baitiete. Kasu hauetan, espezialitate/hizkuntza-eskakizun/derrigortasun datari dagokionez ezaugarri berberekoak diren gainerako lanpostuena ez bezalako talde gisa osatzen

cen criterios para la determinación de los perfiles lingüísticos y las fechas de preceptividad en los puestos de trabajo docentes, como, en definitiva, en diversas otras normas jurídicas aplicables a ese personal.

El Decreto 198/2006, de 10 de octubre, modificó dicho Decreto para adecuarlo a los cambios legales que se habían venido produciendo en relación con determinados aspectos relativos a la función pública docente.

Durante este periodo, la normativa se ha aplicado año tras año para adecuar la situación jurídico-administrativa del personal con plaza definitiva a las transformaciones que los puestos de trabajo iban experimentando como resultado de las variaciones en la matriculación del alumnado y, desde un punto de vista más general, en las necesidades que derivan de las nuevas demandas sociales y a las que los centros escolares deben dar respuesta.

En este momento, el análisis de la actual situación del sistema aconseja acometer determinadas modificaciones en el Decreto citado, con el objeto de asegurar que todos los elementos actuales quedan recogidos en la normativa y garantizar, así, la máxima eficacia del proceso que regula.

En primer lugar, dicha modificación afecta a la definición de los puestos de trabajo que habrán de ser tenidos en cuenta en el proceso, mediante la adición de un apartado general relativo a los puestos que tienen características específicas y que hasta ahora no figuraba.

Así, por una parte, se hace referencia a los puestos itinerantes y mixtos, que únicamente venían siendo contemplados en el Turno III de la Fase II, pero que igualmente pueden ser objeto de modificaciones o supresiones que afecten a las personas titulares, por lo que, aun cuando sólo sea a esos efectos, resulta precisa su mención general en el proceso, para así, permitir la regularización de las situaciones administrativas de aquéllas.

Por otra parte, se introduce la consideración propia de los puestos singulares, en previsión de que, tal y como en la actualidad sucede en los Centros de Infantil y Primaria, las Relaciones de Puestos de Trabajo contemplen también su existencia en los Institutos. La forma de provisión habitual de dichos puestos de trabajo es mediante concurso específico, por lo que no se podrá acceder a ellos en la fase de readscripción, aunque, en cualquier caso, han de ser tenidos en cuenta en el proceso por si son objeto de transformaciones que afecten a sus titulares.

Como último apartado de este bloque, se incorpora una referencia a los puestos que exigen titulación adecuada para impartir las especialidades en inglés, cuya presencia en las Relaciones de Puestos de Trabajo irá aumentando en los próximos años, como resultado de la respuesta que los centros docentes ofrecerán a las nuevas necesidades de enseñanza multilingüe. En estos casos, los puestos de trabajo se configuran como un grupo diferente al del resto de puestos de las mismas

dira lanpostuak; hala ere, berratxikitze fasean erabili ahal dira, eta horrela, lanpostu horietara klaustrokoak diren pertsonak sartu ahal izango dira, programa horien ezarpenean zentroak nahitaez inplikatu behar dira-eta.

Bigarrenik, Dekretua aldatuta, zentroen egitura eraldatzeko irudi berri bat aurreikusi da: ikastetxeen banatzea. Ikastetxeen banatzea orain arteko bateratzearen aurkako fenomenoa da, eta zera esan nahi du: ikastetxe bakar bat ikastetxe berri bitan edo gehiagotan banatzen da, eta prozesu horretan bertan, ikastetxe bakar hori desagertu egiten da.

Horren eragina jasan duten pertsonak ikastetxe berrietako lanpostuetara berratxikitzeko, ikastetxe zaharreko behin betiko lanpostu bakoitzaren espezialitatea/hizkuntza-eskakizuna/derrigortasun data ezaugarriak hartuko dira kontuan, baita ikastetxe zaharrarengandik sortu diren ikastetxe guztietako lanpostuak ere. Horrela, pertsona baten atxikipena egiterakoan, ikusi beharko da pertsona horren behin betiko lanpostuaren ezaugarri berberak dituen lanpostua zein zentrok eskaintzen duen. Antzeko lanpostuak zentro batek baino gehiagok eskainiz gero, bata edo bestea aukeratu ahal izango da, baremoaren hurrenkera nagusiari jarraiki.

Baina berratxikitze-fasean pertsona batek izango dituen aukera bakarrak ez dira izango atxikitze-fasean esleitu zaion zentroak dituen gainerako lanpostuak. Aitzitik, araudiak eskatutako baldintzei jarraiki, eta bakar-bakarrik banatzeari dagokion prozesuarentzat, edozein lanpostu huts betetzeko aukera ere badute, baldin eta lanpostu horren baldintzak betetzen badituzte.

Irudi horren ondorioetarako, prozesu honetan lekuz aldatutako langileek eta lehenago aldatu zirenek adierazi beharko dute sortzen diren zentroetako zeinetan eutsi nahi dioten beren egoerari, zeren eta bakar-bakarrik horietako baten erreferentzia gorde baitezakete. Hala ere, hautatutako ikastetxean bere espezialitateko irakasgaiak ematen jarraitu behar dute, kontuan harturik, definizioz, lekuz aldatutako langileek zentroko behin betiko langileak direla oraindik, nahiz eta hor ordurik ez izan. Hori dela eta, ez luke zentzurik izango egoera horretan jarraitzeak, bera atxikita zegoen irakasgaiak dagoeneko eskaintzen ez dituen zentro batean.

Dekretuaren zirriborroa ordezkaritza sindikalarekin negoziatu da, Plangintzako Batzorde Teknikoaren barruan.

Bestalde, Euskadiko Eskola Kontseiluak, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoko Zuzendaritzak, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Aholkularitza Juridikoak emandako nahitaezko txosten guztiak eskuratu dira.

características de especialidad-perfil lingüístico-fecha de preceptividad, pero, no obstante, pueden ser utilizados en la fase de readscripción, para posibilitar que sean las propias personas integrantes del claustro las que accedan a tales puestos, habida cuenta la necesaria implicación de los centros en la implantación de estos programas.

En segundo lugar, la modificación del Decreto introduce una previsión relativa a una nueva figura de transformación en la estructura de los centros, en concreto, la de división de centros, que podría definirse como el fenómeno contrario al de la fusión, hasta ahora existente, y por la cual un centro único se desgaja en dos o más, de nueva creación, y en ese mismo proceso, desaparece.

La adscripción de las personas afectadas a las plazas de los nuevos centros se llevará a cabo en función de las características de especialidad-perfil lingüístico-fecha de preceptividad de cada una de las plazas definitivas de que disponían en el centro antiguo, y tomando en consideración el conjunto de plazas publicadas en todos los centros derivados de éste. De ese modo, la adscripción de una persona en uno u otro centro dependerá de en cuál de ellos aparezca la plaza que reúne las mismas características que su plaza definitiva, aunque podrá optar por uno u otro, siguiendo el orden general del baremo, en los casos en que plazas semejantes se hallen en más de un centro.

No obstante, la fase de Readscripción no quedará restringida para cada persona al resto de puestos de trabajo que pertenecen al centro que le ha sido adjudicado en esa primera fase de adscripción a plazas de las mismas características, sino que, por el contrario, y aunque únicamente para el proceso en el que se materializa la división, todas ellas podrán optar, en las condiciones exigidas por la normativa, por cualquiera de los puestos vacantes cuyos requisitos de desempeño cumplan, con independencia del centro resultante en que figuren.

A los efectos de esa figura, tanto el personal desplazado en este proceso como el que lo fue anteriormente habrá de manifestar en cuál de los Centros resultantes opta por mantener tal condición, ya que únicamente puede guardar referencia a uno de ellos. No obstante, será preciso que en el Centro elegido continúen las enseñanzas a las que pertenece su especialidad, habida cuenta que, por definición, el personal desplazado continúa siendo definitivo del Centro, aunque no disponga de horas en él, por lo que no tendría sentido mantener tal situación en un Centro en el que han desaparecido las enseñanzas a las que está adscrito.

El borrador de Decreto se ha negociado con la representación sindical en el seno de la Comisión Técnica de Planificación.

Por otra parte, se han recabado los preceptivos informes del Consejo Escolar de Euskadi, la Dirección de Función Pública, la Dirección de la Oficina de Control Económico, la Dirección de Desarrollo Legislativo y Control Normativo y la Asesoría Jurídica del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

Horregatik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko uztailaren 29an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

***Lehenengo artikulua.***– Aldatu egiten da apirilaren 16ko 86/2002 Dekretuaren 3. artikulua; izan ere, paragrafoari 1 zenbakidun puntua erantsi zaio, eta atal berri bat ere gehitu da. Honela daude idatzirik:

«2.– Zenbait zentrotan aritzeko diren lanpostuak (Lanpostuen Zerrendan ibiltaritzat jotzen direnak) eta beren espezialitate nagusian behar beste ikastordu ez dituztenez ezaugarri horiek ez dituzten lanpostuen espezialitate bereko beste espezialitate batean aritzeko direnak (Lanpostuen Zerrendan mistotzat jotzen direnak) talde espezifikokotzat joko dira. Hori dela eta, ez dira ezaugarri horiek ez dituzten espezialitate bereko gainerako lanpostuen taldean sartuko. Hala ere, II. Faseko III. Txandan erabili ahal izango dira, lekuz aldarazitako eta berratxiki gabeko pertsonak berratxikitzeari buruzkoan.

Ingelesez eskolak emateko titulazio egokia exijitzen duten lanpostuak talde espezifikokoak izango dira, eta beraz, ez dira espezialitate bereko gainerako lanpostuen taldean sartuko. Hala ere, II. Faseko II. Txandan erabili ahal izango dira, espezialitate ezberdineko lanpostuetan berratxikitzeari buruzkoan.

Lanpostu bereziak talde espezifikokoak izango dira, eta beraz, ez dira espezialitate bereko gainerako lanpostuen taldean sartuko. Kentzen badira, Dekretu honen irizpideak erabiliko dira eraginpeko pertsonak zehazteko, bai eta ezaugarri berberak dituzten lanpostuetatik aldarazitako pertsonek titulartasuna berreskuratzen duten kasuetarako ere. II. Faseko I. Txandan erabili ahal izango dira, espezialitate bereko eta hizkuntza eskakizun edo derrigorrezkotasun data ezberdineko lanpostuetan berratxikitzeari, eta hizkuntz eraldakuntzei buruzkoan, behin betiko destinoa duten langileentzat edo espezialitate bereko lanpostu berezietatik aldarazitako langileentzat. Hala ere, ezin izango dira erabili II. Faseko II. Txandan, espezialitate ezberdineko lanpostuetan berratxikitzeari buruzkoan.»

***Bigarren artikulua.***– Xedapen Gehigarri bat, Bosgarrena, eransten zaio apirilaren 16ko 86/2002 Dekretuaren testuari. Honela dio:

«Ikastetxeak zatitzeko prozesuetan, zatitutako ikastetxean behin betiko destinoa duten pertsonak ikastetxe berriei atxikiko zaizkie, hain zuzen ere, orain arteko lanpostuaren espezialitate/hizkuntza-eskakizun/derrigortasun-data berbera duten lanpostuei.

Lanpostu horiek zatitzearen ondoriozko ikastetxe batean baino gehiagotan badaude, zatitzearen eragina jasan duten pertsonek hautatu egin ahal izango dute, 16. artikuluan adierazitako antolamendu-irizpideen arabera.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 29 de julio de 2008,

DISPONGO:

***Artículo primero.***– Se modifica el artículo 3 del Decreto 86/2002, de 16 de abril, mediante la adición de un número 1 en el párrafo hasta ahora vigente y de un nuevo apartado redactado en los siguientes términos:

«2.– Los puestos que impliquen impartición en varios Centros (señalados en la Relación de Puestos de Trabajo como itinerantes) y aquéllos que, por tener su especialidad principal una carga insuficiente de horas lectivas, implican impartición de otra especialidad (señalados en la Relación de Puestos de Trabajo como mixtos) de los de su misma especialidad que no tienen esa caracterización serán considerados como grupo específico, por lo que no se agruparán con el resto de puestos de sus mismas especialidades que no tienen esa caracterización. No obstante, podrán ser utilizados en el Turno III de la Fase II, relativo a la readscripción de personas desplazadas y no readscritas.

Los puestos que exigen titulación adecuada para impartir en inglés serán considerados como grupo específico, por lo que no se agruparán con el resto de puestos de la misma especialidad. No obstante, podrán ser utilizados en el Turno II de la Fase II, relativo a la readscripción en puestos de trabajo de diferente especialidad.

Los puestos singulares serán considerados como grupo específico, por lo que no se agruparán con el resto de puestos de la misma especialidad. Si fueran objeto de supresión, se utilizarán los criterios del presente Decreto para determinar las personas afectadas, así como para los casos de recuperación de titularidad por personal desplazado de puestos de trabajo de las mismas características. Podrán ser utilizados en el Turno I de la Fase II, relativo a la readscripción en puestos de trabajo de la misma especialidad y diferente perfil lingüístico o fecha de preceptividad y transformaciones lingüísticas, para personal con destino definitivo o desplazado de puestos de trabajo singulares de la misma especialidad. No obstante, no podrán ser utilizados en el Turno II de la Fase II, relativo a la readscripción en puestos de trabajo de diferente especialidad.»

***Artículo segundo.***– Se añade una Quinta Disposición Adicional al texto del Decreto 86/2002, de 16 de abril, cuyo contenido es el siguiente:

«En los procesos de división de Centros las personas con destino definitivo en el Centro dividido serán adscritas en los nuevos Centros en plazas de la misma especialidad-perfil lingüístico-fecha de preceptividad que aquéllas en las que se encontraban.

En el caso de que existieran tales plazas en más de uno de los Centros resultantes, las personas afectadas elegirán por cuál de ellas optan, conforme a los criterios de ordenación recogidos en el artículo 16.

Prozesu horretan zehaztu egin behar denean lanpostuak ezabatzeak zein pertsonari eragiten dien, Dekretu honen 5., 6. eta 7. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio. Ondorio horietarako, artikulu horiek Lanpostuen Zerrendari buruz egiten duten aipamena, espezialitate/hizkuntza-eskakizun/derrigortasun-data bakoitzean dagoen titular-kopuruarekin alderagarria dena, zentro berri guztietako Lanpostu Zerrendak gehituta ateratzen den emaitzari egin zaiola ulertu beharko da.

Lekuz aldarazitako langileek zentro batean berreskuratuko dute beren lanpostuen titulartasuna, eta zentro horretan Lanpostuen Zerrendak dagokien espezialitate/hizkuntza-eskakizun/derrigortasun-datako lanpostuak zehazten ditu.

Ikastetxe berean berratxikitzeko (Dekretu honen III. Tituluko irizpide orokorren arabera egingo da hori ere), kontuan izango dira ikastetxe berrietan, behin aurreko paragrafoetan adierazitako prozesua amaituta, hutsik dauden lanpostu guztiak. Horregatik, zatitutako ikastetxean behin betiko destinoa zuten pertsonek eskatu ahal izango dituzte lanpostu horiek, zeinahi delarik ere pertsona horien ikastetxe berria, baldin eta eskatutako baldintzak betetzen badituzte (zatitze-prozesuetan bakarrik egin ahal izango da hori).

Behin betiko langileak atxikiko zaizkion ikastetxea prozeduraren fase eta txanda guztien ondoren langile horiei esleitu zaien lanpostua duena izango da.

Prozesu horretan aldarazita gertatzen diren pertsonek, bai eta lehengo prozesuen ondorioz aldarazita izan direnek ere, adierazi beharko dute sortzen diren zentroetatik zeinetan eutsi nahi dieten izaera horri. Horretarako, zentro horrek jarraitu beharko du eskaintzen bere espezialitateko irakasgaiak. Bestela, ezabatutzat joko direla ulertuko da.

Irakaskuntza Ertaineko institutu teknikoko irakasle berezien kidegoko lan-legepeko langileak edota langile funtzionarioak dauden zatiketetan, Lehen eta Bigarren Xedapen Gehigarrietan jasotako aurreikuspenak aplikatuko dira.»

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko uztailaren 29a.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

Si en ese proceso fuera necesario determinar qué personas están afectadas por supresiones de puestos de trabajo se atenderá a lo dispuesto en los artículos 5, 6 y 7 del presente Decreto. A estos efectos, la referencia que tales artículos realizan a la Relación de Puestos de Trabajo que sirve de comparación con el número de titulares existentes en cada especialidad-perfil lingüístico-fecha de preceptividad deberá entenderse realizada al resultado de agregar las Relaciones de Puestos de Trabajo de todos los nuevos Centros.

La recuperación de la titularidad de sus puestos de trabajo por parte del personal desplazado se llevará a efecto en el Centro en el que la Relación de Puestos de Trabajo configure las plazas de la especialidad-perfil lingüístico-fecha de preceptividad que corresponda.

La Readscripción en el propio Centro, que seguirá los criterios generales recogidos en el Capítulo III del presente Decreto, tendrá en cuenta todos los puestos de trabajo de los nuevos Centros que se encuentren vacantes después del proceso descrito en los párrafos anteriores. A esos efectos, todas las personas que disponían de destino definitivo en el Centro dividido podrán solicitarlos cualquiera que sea el Centro nuevo en el que se encuentren, siempre y cuando cumplan las condiciones exigidas y únicamente en el proceso en el que se materialice la división.

El personal definitivo quedará adscrito al Centro en el que se sitúe la plaza que tenga adjudicada después de llevar a cabo todas las fases y turnos del procedimiento.

Las personas que resulten desplazadas en este proceso, así como quienes tuvieran esa condición por efecto de procesos anteriores habrán de manifestar en cuál de los Centros resultantes opta por mantener tal condición, para lo que será preciso que en ese Centro continúen las enseñanzas a las que pertenece su especialidad. En otro caso, se entenderá que adquieren la condición de suprimidas.

En aquellas divisiones en las que hubiere personal laboral y/o personal funcionario del Cuerpo de profesores y profesoras especiales de institutos técnicos de enseñanzas medias, serán de aplicación las previsiones contenidas en las Disposiciones Adicionales Primera y Segunda.»

DISPOSICIÓN FINAL

Este Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 29 de julio de 2008.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.